



NAFARROAKO MENDIALDEKO IKA
EUSKALTEGIEN EUSKARA ALDIZKARIA

ETXETIK PLAZARA

IKAZKINAREN BISITA

SARIA:
BIDAZI
elkarteko
bertako produktu
ekologikoz
osaturako
saskia

2018ko ABENDUA 160. ALEA

IRAKURLAN

NOR eta ZER DA OLENTZERO?

Lastozkoa edo hezur-haragizkoa? Bizar zurikoa edo aurpegi zikinekkoa? Ikazkina edo opari-egilea? Gizonezkoa edo emakumezkoa? Lehenbiziko, kristautasunak eta, ondotik, kontsumismoak murtzikatu, irentsi eta bueltan kanporatu duten pertsonaia mitologikoa baino ez da. **Nola** Olentzerok **hala** Eguberriek jasan dute eraldaketa sakona; bistan da garai berriek beren gisara egokitu dituztela biak ala biak. Baina, nondik heldu dira? Zein da ohitura horien jatorria? Bada, ikuspegi historikoan oinarrituta, erantzuna ematen saiatuko gara Etxetik Plazarako ale honetan.

Antzinaroan, egungo egutegi finkorik gabe, ilargiaren zikloak eta lurra zein eguzkiaren arteko posizioak hartzen ziren kontuan, naturaren nondik norakoak konprenitzeko. Hala, inauteriek edota udako nahiz neguko solstizioek markatzen zituzten aldaketa aroak (urtaroak); Euskal Herrian **ez ezik**, bertze hainbat eta hainbat herri zaharretan **ere**.

Eguberrietan, eguzkiaren itzulera ospatzen zen, hortaz. Antzinakoek uste zuten, egun horietan, eguzkia nagusitzen zitzaiola iluntasunari, eta hura goraiatzeko, suak pizten zituzten. Etxe barnean, errate baterako, gabon gauean enbor astun bati su ematen zioten, hura eguberri-eguna edo gabon zahar gaua arte biztua egon zedin (ahalik eta luzeen). Ohitura horrek duela gutira arte iraun zuen **bai** Euskal Herrian, **bai** Pirinioetan, **bai** Europako mendi-herri frankotan.

Gabonetako zur puska hark hainbat izen hartzen zituen gurean: sukilero, subilero, bazterrekoa, onantzaro-mokorra, olentzero-enborra... Azken izen horiek zer pentsatua ematen dute, agerian uzten baitute enborraren eta Olentzero pertsonaiaren arteko erlazio estua. Hala eta guztiz ere, ez dirudi sokilaren tradizioa bezain zabaldua dagoenik ikazkinaren kondaira.

Baina, Bidasoa ibaiaren lur hauetan, aspaldikoak dira izaki mitologiko honi buruzko aipamenak; bai eta Goizueta, Larraun, Arakil, Oiartzun edota Pasaian ere. Zikina, mozkortia edo tripaundia bezalako adjektiboak erabiltzen dira hura deskribatzeko. Herri batzuetan, panpina da; eta, bertze batzuetan, aldiz, gizaki itxurakoa. Lastozkoa den zenbait herritan, oraindik ere erre egiten da ospakizuna bukatzen delarik; horra hor aspaldiko su-errituaren arrastoak.

Polita da oraindik ere, lehenagoko ohiturek badiraute ikustea, eta argi dago garai berrietara moldatu direlako daudela bizirik gaur egun. Gainera, ezinbertzekoa da tradizioak egokitzea; bertzenaz, zer zentzu izanen lukete horrelako praktikek oraingo testuinguruan? Halere, tentuz hartu beharreko afera da, moldaketa horiek zentzudunak izatea nahi bada behinik behin. Izan ere, gizartearen topikoek eta inguruko influentziek gure ohitura-herentzia zaharrak desitxuratzera eramán gaitzakete. Honda-rrean, gure alderdirik kontsumistena eta kontserbadoreena gurtzeko iduri bihurtu da, lehen, naturari errespetua adierazten zion ospakizuna: Coca Colaren Aita Noelen euskal bertsioa baino ez..



LAN ETA LAN



Ikusi berri dugun testuan, hainbat egitura beltzez nabarmendu ditugu; izan ere, horiexek lantzeko aprobetxatu nahi dugu lanketa hau. Markatutako kasu guzietan, bigarren perpausak zerbait gehitu edo gaineratzen dio aitzinekoak errandakoari. Banan-banan ikusiko ditugu hobeki konprenitzeko:

Nola... hala...

Bi juntagailu agertzen zaizkigu egitura mota honetan: *nola* eta *hala*. Batzuetan, ordena aldatzen zaio: lehenbizi, *nola*; eta, ondotik, *hala* paratzen da. Adibidez:

- **Nola** Olentzerok **hala** Eguberriek jasan dute eraldaketa sakona.

Bai..., bai...

Kasu honetan *bai* elementua errepikatu egiten da zerrenda gisakoa osatuz. Gauza bera egin daiteke ez partikularekin. Adibidez:

- **Bai** Euskal Herrian, **bai** Pirinioetan, **bai** Europako mendi-herri frankotan, ohitura horrek duela gutira arte iraun zuen.

Ez ezik, ...ere

Egitura honek bi zati ditu: *ez ezik* (lehenbiziko zatia giblean joaki da) eta *ere* (bigarren zatia ondotik). Adibidez:

- Euskal Herrian **ez ezik**, bertze hainbat eta hainbat herri zaharretan **ere**.

Eta, orain, zuen txanda! Berridatzi honako esaldi hauek:

ERNE SARIRAKO!

- 1) Bai zuk, bai Agurtzanek Etxetik Plazara irakurtzen duzue.

Nola.....hala.....

- 2) Gorriz ez ezik, beltzez ere pintatu dut atea.

Bai.....bai.....

- 3) Nola gazteak hala zaharrak, bileran agertu ziren.

.....ez ezik,.....ere.....

- 4) Olentzero ez ezik, Aita Noel ere etorri zen herrirat.

Bai.....bai.....

- 5) Nola Malerrekan hala Baztanen, herri ederrak daude.

.....ez ezik,.....ere.....

- 6) Bai Larun, bai Saioa Nafarroako mendiak dira.

Nola.....hala.....



Olentzeroren antzeko hainbat eta hainbat _____1_____ daude mundu osoan. Horiek aztertzean, ezaugarri berdintsuak topatu ditugu: neguko solstizioarekin lotura, ikuspegi historikoa, suaren erritu-alekin harremana, kristautasunaren eragina zein bilakaera... eta, gaur egun, zer lotura duten gure alderdi kontsumistenarekin.

Testu honetan sorta bat prestatu dugu, eta, hurrengo orrialdean, pertsonaien argazkiak paratu ditugu. Izenak irudiekin parekatu eta hizki-zopan aurkitu beharko dituzu. Eta falta diren hitzak behean aurkituko dituzu nahasita. Ongi aukeratu!

1

APALPADOR

Galiziako ikazkina dugu. _____2_____ etxez etxe joaten da umeen sabelak ukituz, ongi elikatuta ote dauden baieztatzeko eta opariak uzteko.

2

TIÓ DE NADAL

Kataluniako enborra da. Abendu hasieratik estalki batez babesten dute eta Eguberrietan abestiak eskaintzen dizkiote. Goxokiak banatzen ditu.

3

ESTERU

Kantabriakoa, kristautasunaren _____3_____ pertsonaia dugu, eta neguko solstizioarekin harreman zuzena dute. Olentzeroren antza handia duenez, badira jatorri bertsua duten iritziak.

4

BEFANA

Italiako sorgin ona, urtarilaren 6an azaltzen da. Erregeen ordeko pertsonaia dugu, gozokiak eta txokolatea banatzen dizkie ongi portatu diren umeei; "gaizki" portatu direnei, _____4_____, ikatza. Befanak Erregeei Jesusengana ailegatzeko bidea erakutsi omen zien. Hura bisitatzera ez omen zen ailegatu; geroztik, umeei goxokiak banatzen dizkie, baten bat Jesus bera delakoan.

5

BABUSHKA

Errusiako emakume honek ez zuen garaiz izan Jesusen jaiotzaren berri, baina bere etxe txukunean Erregeek ostatu hartu omen zuten. Ordutik, opariak banatzen dizkie txikiei.

6

MOROZ

Eslovakiako Kristo aurreko jainko-pertsonaia dugu. Errusia zaharrean barna hiru zaldi _____5_____ gidatutako gurdi bat gidatzen du, biloba eta elurrezko neskatilaren laguntzaz. Ongi portatu diren umeei opariak banatzen _____6_____.

7

AITA NEGUA EDO JACK FROST

Europako Iparraldeko pertsonaia. Mitologia anglosaxoi eta nordikoan agertzen da. Haren ardura da elurra eginen duela _____7_____; udazkeneko koloreak izanen direla eta Bizar Zuriak bere banaketarako eguraldi ona izanen duela.

8

YULE MUTIKOAK

Islandiako pertsonaia gaizto eta maltzurak. _____8_____ ipotx dira. Gurasoek umeak beldurtzeko erabiltzen zituzten lehen, baina, gaur egun, opariak banatzen dituzte, rol bana beteta. Yuletide izeneko katuak laguntzen die gaizki portatzen diren umeekin gupidarik izan gabe.

1.- a) pertsonai
b) pertsonaje
c) pertsonaia

2.- a) Abenduaren 31an
b) Abenduaren 31n
c) Abenduan 31ean

3.- a) antzinako
b) aintzineko
c) aitzineko

4.- a) berriz
b) behintzat
c) berriro

5.- a) zuriak
b) zuriak
c) zurik

6.- a) die
b) dizkie
c) diote

7.- a) ziurtatzeko
b) ziurtatzera
c) ziurtatzea

8.- a) Hamairu
b) Hamahiru
c) Hama hiru

JOLAS-NAHAS

PERTSONAIEN HIZKI-ZOPA



1-



2-



3-



4-


U A O F O P O P G U G K R U J W
D P F S O B S V J J F P S Y A E
E A A L D Z E T M O R O Z F A V
Y L C U Y Q S B T Y Q F I L U F
E P K A W E T L I U E X J D A V
B A I I I Q E Y O L X U R J K W
A D F T U U R U Y E W Y O Y Y J
B O R F O T U F D S Y W T U H U
H R O Z E Y K J E M N J Y A X O
U E S M P B O W B U E V O U Y V
S N T N S M Y P N T J U E T K E
K B E F A N A E A I I A I K W E
A T E I H D F A D K U Q U W P U
G D E D S V P N A O Z D T Z U I
A H M O A Q X B L A Z R L M Q I
Q Z E X I W I E Y K E A U A J C



5-



6-



7-



8-

SUKALDEA DANTZAN

EGUBERRIETAKO ERREZETAK

Eguberri Gauean gurasoen etxera afaltzera zihoan semeak bakailaoa, ardoa, bisigua eta pattrarra eramaten zuen; alabak txokolateak, bizkotxoak eta bolatuak. Eguberri Gauean ebakitzen zen lehen ogi pusketa hiru ardo-tantaz busti eta mantel azpian gordetzen zen Urte Zahar Gaua arte. Bitartean, afaltzeko bakarrik ateratzen zen. Urte Zahar Gauetik hurrengo Eguberri Gaua arte gorde egiten zuten hainbat gaitzen kontra. Bada, bai, hamaika ohitura, hamaika errezeta Eguberri Gauerako... Guk honako hauek proposatu nahi dizkizugu. Hitz batzuk beltzez paratu ditugu eta behean agertzen diren sinonimoekin parekatu beharko dituzu lehenbizi.

ARRAIN ZOPA

1 Kg muskuilu litro erdi uretan egosi; gorde mamia, batetik; eta ura, bertzetik. 200 g ganba jelatu zuritu; **(1) erauzi** **(2) buztanak** eta gorde; litro erdi uretan azal eta buruak egosi. Salda iragazi eta gorde. Ondoren, 1 Kg arrain zuri 2 litro uretan egosi. Epeldutakoan, jakia eskuz txikitu, eta muskuilu eta ganbekin gorde; ura lehen egindako saldarekin. 2 porru, 2 azenario eta tipula bat **(3) xehatu**; su ezian 2 dl oliotan erregosi. **(4) Erantsi** zopako ogi erdi bat xerratan; ondotik, erregosi. Arraina, muskuiluak, 200 g tomate saltsa eta kopakada bat koñak gehitu. Saldarekin busti aurretik, barazkiak xeha ditzakezu turmixez. Memento horretan zopa su motelean osatu. Aparra bitsaderaz kendu. Txirlaren bat erantsi behar baduzu, berotu olio-tanta batez padera zaharrean; ireki ahala, erantsi **(5) eltzekoari** eta gatz puntua zuzendu.



(6) ARKUME ERREA

Jaten hasi baino sei bat ordu lehenago, ontzi batean ur gazia jarriko dugu (50 g gatz ur litroko). Murgildu hor arkumea. Bi ordu falta direlarik, labea bizi-bizi piztu. Hortik ordu laurden batera arkumea ongi **(7) xukatu** eta labean sartu. Gorrituta dagoelarik, bertze aldera **(8) irauli**. Sua jaitsi eta eduki barrendik zukutsu baina gorriunerik gabe geratu arte. Orduan labea itzali. Labeko plakan gelditu den saltsa horri koñaka erantsi eta minutu batzuz beratzen utzi.

MAZAPANA

Osagaiak: 250 g almendra **(9) birrindu**; 250 g azukre; 100 g patata-pure; 100 g ur. Almibar bat eginen dugu, 100 g azukre 100 g uretan urtu eta su ezti-eztian berotuz. Osagai guztiak nahasi, eskuz landu eta pilaskak egin. Jarri horiek olata banatan eta labeko plakari gurina eman. Gainetik arrautzaz pintatu, glas azukrea eman edo almibarrez estali. Gainaldea berotu, gorritu eta atera.



- | | | |
|---------------------|------------------|-------------------|
| a) txikituta: | d) isats: | g) bildots: |
| b) kendu: | e) gehitu: | e) idortu: |
| c) nahasi: | f) lapiko: | f) puskatu: |

ERANTZUNAK

BITXILOREAK (4. or.):

1- c; 2- b; 3- a; 4- a; 5- c; 6- b; 7- c; 8- b

JOLAS NAHAS, Hizki zopa (5. or.):

1- Esteru; 2- Yule mutikoak; 3- Befana; 4- Fack Frost; 5- Apalpador; 6- Moroz; 7- Tio de Nadal; 8- Babhuska

SUKALDEA DANTZAN (6. or.):

9- a; 1- b; 8- c; 2- d; 4- e; 5- f; 6- g; 7- h; 3- i

159. aleko sariketa erantzunak – BITXILOREAK (5. or.):

1- a; 2- c; 3- c; 4- b; 5- a; 6- c; 7- c; 8- c

ETXETIK PLAZARA lehiaketa

Gure lehiaketan parte hartzeko, ariketa baten erantzunak bidali beharko dituzu. Ale honetan, **3. orrialdeko** erantzunak dira beheko aldera pasatu beharrekoak. Marratik moztu eta postaz bidali azkeneko orrialdeko helbideren batera. Hurrengo alean ariketa horren erantzuna eta sariaren irabazlearen izena agertuko dira.

Saria: **BIDAZI** elkarteko
bertako produktu ekologikoz
osatutako saskia

159. aleko irabazlea:
Olaia Elizalde Garaikoetxea
Elizondokoa

ETXETIK PLAZARA liburua DEBALDE!!

Eska ezazu,
Bortziriak, Malerreka eta Leitzaldeko
IKA euskaltegietan



OHARRA: erantzunak abenduaren 20a baino lehen bidali itzazu.

SARIRAKO ARIKETA

LAN ETA LAN (3. OR.):

- 1- _____
- 2- _____
- 3- _____
- 4- _____
- 5- _____
- 6- _____



EUSKARA berri on!!

ESKER ONEZ

beteriko SU-PINTTARRAK;
Urdazubiko Nikolaurenea eta
Iturengo Altxunea erretegiei,
Lesakako Linddurrenborda
sagardotegiari, Beko
mintegiari, Bidazi Elkarteari,
Baztango Udalari eta
Bortziriak eta Malerrekako
Euskara Mankomunitatei...

... eta ESPERANTZA eta
ESKER ON SUTARRI GORIAK
euskaltegiak eta euskalgin-
tzaren egoera sendotzeko,
bultzatzeko eta babesteko
ahaleginetan dabilen Nafarro-
ako Gobernuari... ea asmo
onak gauzatzen ahal diren..

... eta BEROTASUN GOXOA EUSKARA
erabiltzeko, hobetzeko, ikasteko,
babezteko eta EUSKARAZ osasuntsu
bizitzeko ahaleginean ari zareten Etxetik
Plazarazale eta euskaltzale guztiei!!



Aldizkari honen egileak:

**Bortziriak eta
Malerrekako IKA
Euskaltegiak**

Diseinua, marrazkiak
eta maketazioa:

Joseba Larratxe

Laguntzaileak:

**Nafarroako
Mendialdeko
EUSKARA
MANKOMUNITATEAK**



ZOZKETARAKO DATUAK

Izen-abizenak:.....

Helbidea:..... Herria:.....

Telefona:..... Adina:.....

HORRA GURE HELBIDEAK

Bortzirietako IKA Euskaltegia.
Arretxea 22, 31770 Lesaka.
bortziriak@ikaeuskaltegiak.eus

Malerrekako IKA Euskaltegia.
Rosa seminario 6, behea, 31740 Doneztebe.
malerreka@ikaeuskaltegiak.eus

